



BIRIATU Xoldo

Distantzia 8,4 km	Desnibela 550 m	Iraupena 3h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak GR seinaleak (gorria eta zuria) 1. zatitik 3.eraino, PR (horia) berriz itzultzeko
-----------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---

Urruñatik (A63 autobideko 2. jalgebidea), hiri inguruko biribilgunean, zuzen segitu Behobiako norabidean (D810). Urruñako auzo honetan zarelarik, Irungo nazioarteko zubia baino doi bat aitzinago, Biriaturko norabidea segitu ezkerrean, eta gauza bera egin hurrengo biribilgunean. Herriko gainalderaino bidea igo, non aparkaleku batzuk aurkituko dituzun ezkerrean. Ibilaldiaren abiapuntua karrikaren puntan.

GPS datuak: **UTM : 601892 - 4798591 Lat/Long : 43.33326/-1.74311**

Itsasbazterraren gaindi ibiltzeko, Hendaia-Donibane Lohizunera, ez da deus eraginkorragorik Xoldoko igoaldia egitea baino, Biriatur herri atseginetik abiatuz, GR10 bide luzeko ibiltarien bide beretik. Biriatur ez baita ordainleku bat bakarrik, baizik eta herri bat ere, lilura dirudien paisaia bati doa.



1. ZATIA > Biriaturtik G.T. lineako bidegurutzera

UTM: 601892 - 4798591

Biriaturko pilota plazatxoan zeharkatu (50 m), mailak igo, Hiribarren ostatuaren ezkerrean den karrikarte hartu, eta hurrengo karrika ezkerrean igo, elizaz haraindian. Hurrengo bidegurutzean (lepo ttipi), eskuinera joan GR10 karrikan (Mendiko Bidea). Hurrengo Y itxurako bidegurutzean, eskuineko karrika igo, gorri eta zuriz seinalatua. Mundrunaren puntan (aparkalekua), eskuineko bide harriztatuan igotzen segitu. Zenbait bihurgune eta atexka baten ondotik, zuzen ibili bide nagusian G.T. lineako zuta-bearen oinean den bidegurutzeraino.

2. ZATIA > Rocher des Perdrix (haitza) bistalekua eta Xoldo gailurra

UTM: 602620 - 4798372

Errekaldeko bidegurutzean (159 m), ezker hartu eta segidan eskuin, zutabearen oinean iragaten den bidexka arrokatsua igotzeko. Abiadura moteldu, ezponda ttipi batzuetara zuzen igotzeko gisan. Rocher des Perdrix haitzaren oinarrian, bidexka ezkerrean doa orientazio mahai baten ondotik pasatzeko (290 m). 50 m egin zelaian, eta eskuin igotzen den bidexka hautatu. Laster, GR10 bideko malkar arrokatsu bat saiheste daiteke bihurgune belartsu batetik. Gorago, igoaldi oso panoramikoa iratze eta oteen artean luzatzen da. Bidexka ezkerrean den beste bide batera iristen da: Xoldoko igoaldia zuzen segitu, gerostik errazago diren maldetan.



3. ZATIA > Xoldo gailurretik Pitare lepora

UTM: 603628 - 4797776

Ikuspegiaz gozatu eta gero, Xoldo gailurra zeharkatu (486 m) eta, zuzenean, bidexkan jaisten hasi. Bidexkak bi bihurgune handi marrazten ditu eta Osingo lepo belartsura heltzen da (371 m): ezkerreko bide onean segitu, Larrunen parean. Laster Pitare lepora jaisten da.

4. ZATIA > Pitare lepotik Ihiztoki oihanera

UTM: 604061 - 4796840

Pitare lepoan (316 m), GR seinaleak utzi, segidan bi adarretan bereizten den bidean eskuinera joateko: oihanean sartzen den ezkerrekoa hautatu.

Bidea oihanean jaisten da bi bihurgune handitan, eta erreka baten bazterretik doa. Lurrezko bidera heldu eta (221 m), erreka zeharkatu eta eskuineko bidea segitu. Lantzeta-errekaren gurutzeko itxurako bidegurutzean (200 m), eskuinean den bigarren bidea segitu, kasik zabalean. 200 m urrunago (Y), bidea utzi, ezkerrean den bidexka hartzeko, landare-tunel batean. Bihurgune batetik ateratzean, jaitsieran ezkerrean, eta 80 m beherago eskuin.

5. ZATIA > Biriatura itzultzea

UTM: 602685 - 4797422

Xeila baten ondotik, bidegurutze batera iritsi haritz lodi baten azpian (90 m): eskuinera igotzen den bidexka hautatu. Patarraren puntan, atexka bat iragan eta oihan-bidexkan ibili, hesi bazterretik. Gero, ibar-zulo eta oihanpe zenbait zeharkatu jaitsi. Erreka baten ondotik, bidexka oihanean berriz igotzen da. Y itxurako bidegurutzean, ezkerrean den biderei kasurik ez egin eta eskuinaldera igotzen segitu, haritz eta gaztainondoan azpitik. G.T. linearen azpitik pasatu eta gero, igotzean hartutako bidexka topatu. Jaitea baizik ez zaizu gelditzean Biriatura sartzeko.

INTERESGUNEAK

❖ GR10 (1,5 km)

Asko dira Biriatur gainera igotzen den bidexka honetan ibiltzen direnak. Hemen da GR10 bidearen abiapuntua, Pirinioetako mendikate osoa zeharkatzeko bidea ematen duena, Atlantikotik Mediterraneoera, hots 870 km-ko abentura! UTM: 603119 - 4798527

❖ Biriaturko pilota plaza

Biriaturko pilota plazak, "plaza libre" deitzen zaiola eta, arkitektura multzo eder bat eskaintzen du, etxe, tribuna, ostatu eta pilota lekuaren artean (ahur-jokotan oinarritutako jokoak). Herrian beherago, Xoldo erabilera anitzeko aretoak ezkerreko pareta bat aterpetzen du, pilota partidei ere zuzendua. UTM: 601892 - 4798591

❖ Bidasoa deltarako ikuspegia (2,6 km)

Xoldo gailurak itsasbazter osoa begizatzeko aukera eskaintzen du. Bidasoako deltan egoten bagara, Irun eta Hendaia arteko eraikinek gupidetsi dituzten landare guztiak aurki ditzakegu. Horiek dira eremu babestuenak, hala nola Plaiaundiko naturazko erresalbu gunea, bisita bat merezi duena. UTM: 603628 - 4797776

❖ Gorostia (3,6 km)

Bideak gorosti zuhaizti bat zeharkatzen du. Gorostasuna harturik eta beraz abere belarjaleen eremutik kanpo, begira nola hostoek ez duten gehiago ziztarik. UTM: 603891 - 4797063

❖ Pitareko tumuluak (3,95 km)

Pitare lepoak eskualdea tumulu-harrespil dentsitatearengatik ezagutua da, prehistoriatik Antzinarorako hilibi-monumentuak, lur eta harri metaketa baten itxura dutenak. Pitare oihanean sartu bezain laster aurki daitezke, landaretzak behaketa ez duelarik erazten ere. UTM: 604053 - 4796818

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Biriatur, ur gunea eta komunak herrian (pilota plaza) UTM: 601900 - 4798601